

Whatsart_DSS2016EU

Hirugarren atalaren memoria

2016ko Uztaila



Kultiba garatzen ari den WHATSART_DSS2016EU proiektuaren hirugarren atalaren memoria.
Amorebieta-Etxano, **2016ko Uztaila**.

KULTIBA Koop. Elk. Txikia

www.kultiba.net // www.kultiba.org

info@kultiba.net

+34 94 673 06 52

San Miguel kalea, 8-1º izq.

48.340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)

Proiektuaren arduraduna::

Aintzane Lekunberri

aintzane@kultiba.net

635 751 687

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	3
SARRERA.....	4
EKINTZEN DESKRIBAPEN ZEHATZA.....	6
Egunez eguneko ekintzak.....	7
Ostiralean aurkeztutako lana.....	8
EKINTZEN EMAITZA	9
PARTE HARTU DUTEN GAZTE TALDEA	11
ERABILITAKO BALIABIDEAK	13
Espazioak	14
Komunikazio tresnak.....	14
ONDORIOAK	16

SARRERA

Ondorengo lerroetan, WHATSART proiektuaren sorkuntza fasearen inguruko ebaluazio txostena aurkezten dugu.

Sorkuntza fasearen helburu nagusia, gazteek aktibazio fasean zehar garatutako lana, artista talde batekin "artefako" batean adieraztea izan da.

Dokumentuaren egiturari dagokionez, bost atal nagusitan banatzen da:

- ★ Ekintzen deskribapen zehatza
 - Egunez eguneko ekintzak
 - Ostiralean aurkeztutako lana
- ★ Ekintzen emaitzak
- ★ Parte hartu duten gazte taldea
- ★ Erabilitako baliabideak:
 - Espazioak
 - komunikazioa
- ★ Ondorioak

EKINTZEN DESKRIBAPEN ZEHATZA

Egunez eguneko ekintzak

Uztailak 4, Astelehena

Lehen eguna Tabakaleran garatu zen. Bertan, Artista eta gazteen arteko lehen kontaktuan, elkar ezagutzeko dinamika eta jolasak landu egin ziren. Joko hauen bitartez, gazteek fase honetan jarrita zituzten espektatibak eta nahiak atera ziren fasean garatzekoak ziren hurrengo ekintzak moldatu ahal izateko.

Bertan geundela Ibai Zabaletak Hirikilabs gunean ezagutzeko aukera izan genuen. Espazio honek gazteen inspirazio eta sorkuntza faseak irekitzen zituen aukera ezberdinez ohartarazteko balio izan zuen. Sound Sistem-a aurkeztu zion taldeari, elementu hau ostiraleko ekintzara begira erabiltzea erabaki zen.

Iñigo Canteroren bisitan taldea ezagutzeko aukera izan zuen eta baita hurrengo egunetan erabiltzekoa zen M-Etxea espazioa aurkezteko.

Uztailak 5, Asteartea

M-Etxean lan egiten hasi zen gazte taldea. Bertan artefaktua garatzeko lehen arauak eta baldintzak finkatu ziren. Hauen artean, eta gazteek ekintzaile jarrera sustatzeko, ideiak eta aukerak proposatzen zituen pertsonak aurrera eramateko ardura jasotzen zueneko jarrera sustatu zen. Lehen egun honetan ideia ezberdinak landu ziren eta gazteek etxerako lanak eraman zituzten ideiarekin erlazio zeukaten irudi eta esaldiak bilatzeko.

Uztailak 6, Asteazkena

Hasiera Easo plazan izan zen. Bertan ostiralena garatzeko zen jardunaldia antolatzeke eta aukera ezberdinak baloratu ziren. Tabakalerara gerturatu ziren Sound Sistem-a hartzeko. M-Etxearako bidean Sound Sistem-aren lehen frogak egin ziren jendeak zuen harrera ikusteko.

Berrito M-Etxean, ostiralean erabilitako aldizkaria egiteko irudi, esaldi eta eduki guztiak landu izan zituzten hiru taldeetan ezberdindurik; Sexua-Gorputza, Manipulazioa eta pentsatzeko espazioa. Egun honetan ere gazteek Sound Sistem-an jarri nahi zituzten abesti zerrenda egin zuten.

Uztailak 7, Osteguna

Osteguna produkzio lanetan zentratutako eguna izan zen. Aurreko egunean prestatutako aldizkariko edizio lanak bukatuta, inprentara eraman zen lehen aleak prest izateko ostiralera begira. Beharrezkoa zen materialaren erosketa egin zen eta ostiralera begira egin beharreko

lanen banaketa prestatu zen. Azken ideian kontrastea egin zen gazteen artean ostiraleko ekintza prest usteko.

Ostiralean aurkeztutako lana

Uztailak 8 ostirala, Easo plazan egin zen proiektuaren kaleratzea egindako lana erakusteko eta bertara gerturatu ziren hiritarren iritzia jasotzeko.

Ekintza M-Etxean hasi zen. Bertan geratu ziren gazteek materialak prestatzeko eta garatuko zen ekintzaren azken erreposoa egiteko.

Gazteek Easo plazarako bidea hartu zuten bertan aurkitzen zituzten hiritarrei proiektua aurkeztuz, Easo plazako ekintza aurkeztu eta landutako aldizkarietan beren ekarpenak egiteko gonbitea luzatuz.

Behin Easo plazan, aldizkarietan hiritarren ekarpenak jasotzeko espazio antolatu zen. Espazio honetan, material ezberdina jarri zen erabilgarri, aldizkari ale ezberdinak eskaini ziren eta sortutako gunea girotzeko musika jarri zen. Beran eragin ziren aleak eta materiak ezberdinak, gizarteratze fasean erabiliko dira proiektua gipuzkoa osotik erakutzi ahal izateko.

Proiektuaren itxiera M-Etxean egin zen. Easo plazatik gazte taldeak Tabakalerakoa bidea hartu zuen Sound Sistem-a bertan itzultzeko eta M-Etxeako material eta dokumentuak jaso ostean sorkuntza faseko itxiera egin zen gazteen balorazio eta iritzia jasota elkarrizketa zabal baten bitartez.

EKINTZEN EMAITZA

Sorkuntza faseko lanak bukatuta, ondorengoko elementu eta materiak garatu dira Artefaktu bezala.

- ★ Buruhandia
- ★ Irudi eta esaldiekin landutako aldizkari originalak
- ★ Hiritarren beren ideia eta kezka plazaratu dituzten aldizkariak
- ★ Gazteek sortutako musika zerrenda
- ★ “Llevo 17 años dormidx” leloa duen postalak
- ★ “Llevo 17 años dormidx” leloa eta argazkiak dituen kartelak.
- ★ Gazteek eta artistek aterako argazki galeria
- ★ Sorkuntza faseko laburpen bideoa

Elementu guzti hauen Kultibak dauzka gordeta gizarteratze faseko prestaketa lanak egin ahal izateko.

PARTE HARTU DUTEN GAZTE TALDEA

11

Gazteak

- ✧ Patxi Ugarte, Legazpi
- ✧ Asier Perez, Beasain
- ✧ Amanda Sin, Tolosa
- ✧ Lander Velazquez, Villabona
- ✧ Ariel Alfredo Fornais, Irun
- ✧ Nerea Paternai, Irun
- ✧ Marina Sanchez, Irun
- ✧ Arantxo Ortiz, Zegama

Artistak

- ✧ Ane San Miguel, Bilbao [Bizkaia]
- ✧ Carles Gispert, Palma [Mallorka]

ERABILITAKO BALIABIDEAK

13

Espazioak

WhatsARt proiektuaren sorkuntza fasea garatzeko zenbait espazio ezberdin erabili izan ditugu Donostian zehar. Espazio hauek beren garrantzia izan dute sorkuntza prozesuan zehar eta esan genezake sortu den lanean kutsua utzi dutela. Hasiera batena aukera ezberdinak baloratu ziren arren, hauek izan dira erabili diren tokiak:

Tabakalera: Sorkuntza faseko lehen egunean erabilitako espazio. Bertan k Aretoa erabili genuen elkartzeko toki bezala eta bertako gunen irekietan egin genuen lan. Hirikilabs gunea ezagutzeko aukera izan genuen ere Tabakalera barruan.

<https://www.tabakalera.eu/eu>

M-Etxea: Astearte, asteazken, eta ostegunetan erabilitako tailerra. Bi espazio ezberdinak dituen lokalak, bulego eta tailer gunek,

<https://m-etxea.com/>

Easo Plaza: DSS2016EU egoitzatik gertu dagoen plaza erabili genuen WhatsART proiektua kalera ateratzeko eta hiritarrei gerturatzeko.

14

Komunikazio tresnak

Aurreko faseetan erabilitako bide eta kanal berdinak erabili izan ditugu. Fase honetan egindako komunikazio lanak hauen izan dira.

Prensa oharrak: Prentsa ohar bat bidali zen DSS2016-ra Sorkuntza faseko azken egunean Easo Plazan garatutako ekintzaren berri emateko.

Bloga: DSS2016EU-ko Web gunean irekita daukagun blogean idazten jarraitu izan dugun gertakizun garrantzitsu bat garatu den bakoitzean. Faseko difusio lana hasi baino lehen gazteekin batera post bat idatziko da bere esperientzia partekatzeko.

Sare sozialak: Sorkuntzaren berri emateko Twitter eta Instagram erabili ditugu. Nahiz eta Kultibatik sareen arduradun bat egon, aurreko faseetan bezala, gazteak nahastu ditugu honen kudeaketan. Ekintza bakoitzeko arduradunak aukeratu direlarik partaideen artean, edukiak beraiek sareetan mugitu ahal izateko.

Sorkuntza faseko bideoak: Aurreko faseko tailer eta laborategiak bezala, sorkuntza fasean ere egunero egindako ekintzak grabatu dira. Kasu honetan, eguneroko bideo bat atera beharrean fase osoko laburpen bideoa aurkeztu da. Bideoa DSS2016Eu-ko Youtube kanalean ikusgai daude.

Barnera begirako komunikazioari begira, taldearen komunikazio guztiak WhatsApp talde batean bitartez eman da, aurreko faseetan bezala. Kasu honetan, Talde motorearekin eta Artistekin talde berezi bat sortu izan da eguneroko gauzatarako eta paraleloki lehengo taldea mantendu da kontraste lana egiteko.

ONDORIOAK

-

Sorkuntza fasea oso gustura hartu izan dute talde motoreko **gazteek**. Uztailak 8an egindako balorazio tartean, proiektuarekin gustura zeudela eta berarekin jarraitzeko gogoak erakutsi zituzten. Gainera, proiektu osoan zehar, ez dute inolako oztoporik jarri lan gehigarria egiteko eskatu zaienean. Aipatzekoa da gazteek beraien artean izandako elkarlanerako joera eta errespetua ideia eta aukera ezberdinak baloratu eta aurrera eramateko momentuan.

Gazte askok, arte batxilergoetatik eta arteekin aurretiko lutura bazuten ere, beren ideiak libreki adierazteko izan duten aukera egokiena izan dela aipatu dute beren bizitzako hausnartze prozesua garatuz. Oso garrantzitsua izan da proiektuak eskainitako jabekuntza prozesua.

Sorkuntza fasean garatu diren datak gure ustetan egokiak izan dira. Gazteen parte hartzea sustatzeko ez da egokia uztaileko lehenengo astea baino beranduago egitea askok kanpoan daudelako eta baita ere aktibazio fasetik nahikoa denbora igarota, proiektuarekiko lotura galtzeko arriskua agertzen delako. Egia da aktibazio fasea bukatu eta sorkuntzako fasea bitartean ez dela tarte handirik egon sorkuntza fasea prestatzeko baina pertsona askoren lanari ezker posible izan da aldeaz aurretik finkatutako datak errespetatzea.

Parte hartzeari dagokionez, hasiera batean espero genuen parte hartze baxuago izan da. Izatez fase honetarako 15 gazte espero ziren eta azkenean 8 bakarrik parte hartu izan dute. Nahiz eta parte hartu nahi izan, kasu askotan familian planteaturiko opor edo bidaiekin topo izan dugu.

Kultibatik egiten dugun balorazioa oso positiboa da. Gazteek sormen prozesu oso bat bizitzeko aukera izan dute eta bere eskura ez dauden baliabideak erabiltzeko izan dituzte bere ideia eta ardurak adierazteko. Bost egunetan gazteek material ezberdinak sortzeko aukera izan dute elkarrekin egondako momentuez gain beren kabuz lan eginda. Artistak egin duten lana, gazteek nahi zuten proiektua aurrera eramateko baldintzak eta laguntza eskaintzea izan da.

Gizarteratze faseari begira, zenbait elementu garatu egin dira eta artefaktua elikatzen jarraitzeko aukera paregabea eskaintzen du. Badago fase polit bat egiteko nahikoa eduki.

Kultiba



KULTIBA Koop. Elk. Txikia

www.kultiba.net // www.kultiba.org
info@kultiba.net

+34 94 673 06 52

San Miguel kalea, 8-1º izq.

48.340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)